

EL SALVADOR AUZOKO EUSKALDUNAK

·Zuek bai jakin!: Lourdes Idiakez ·Elkarrizketa: Joseba Etxezarreta - Asier Azarola

·Izerdi patsetan: Gimnasia erritmiko eskolako beteranoak ·Boteprontoan: Ino Ugarteburu

# Herri Aldizkaria Otamotz


2008ko

apirila

136. alea







# Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: [mendiola@cmendiola.com](mailto:mendiola@cmendiola.com)  
[www.cmendiola.com](http://www.cmendiola.com)

Etxebizitza  
eraikuntza

Industria  
pabilioiak

Urbanizazio  
lanak

Legazpiko Olazabal Institutuaren  
ondoan **6 chalet adosatuen**  
eraikuntza berria



**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

## aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**  
El Salvador auzoko euskaldunak
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**  
Beltia martxa egiten al duzu?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**  
Carlos Mediavilla
- 18 Zuek bai jakin!**  
Lourdes Idiakez
- 22 Elkarrizketa**  
Joseba Etxezarreta (Urola Garaia: zer da eta nora doa?)
- 24 Elkarrizketa**  
Asier Azarola
- 26 Izerdi patsetan**  
Gimnasia erritmiko eskolako beteranoak
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**  
Ino Ugarteburu



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.



# El Salvador auzoko euskaldunak

*Duela 50 urte Zumarraga goialdean etxe gutxi batzuk besterik ez zeuden. Ordurako hemengo lantegiak langile beharrea zeuden eta gutxira Leturiatarren plazako eta Antonino Oraa kaleko etxeak eraiki ziren. Ehunka etxebizitza egin ziren, baina gehienetara etorkinak joan ziren. Seguru aski, Urretxu eta Zumarragako auzorik erdaldunena da. Bertako euskaldunekin hitz egin dugu bertako giroaz.*





## Arantxa Aranzadi: “Jendeak Katangan bizi garela esaten zigun, mesprezuz, eta horrek amorrua ematen zidan”

Arantxa Aranzadi eta Kizkitza Zendoia ama-alabak Antonino Oraa kalean bizi dira, euren oihal-dendaren gainean. Kizkitza bertan jaio zen, baina ama Ezkiokoa du eta aita Azpeitikoa. “Etxe hau senarrak eraiki zuen, bizpahiru lagunekin batera. Lursail egokia hemen topatu zutelako etorri ginen”, azaldu du Arantxak.

Ezkondu zirenean etorri ziren, duela 49 urte. Leturiatarren plaza eta Antonino Oraa kaleko gainontzeko etxeak eraiki gabe zeuden oraindik. “Baserritxoak besterik ez zeuden: Amenabartarrak, Bakerotarrak, Telleriatarrak eta beste gutxi batzuk besterik ez ziren bizi hemen. Futbol zelai txiki bat ere bazegoen. Garai hartan denok euskaldunak ginen”.

Handik gutxira giroa erabat aldatu zen. “Orain eliza dagoen tokian ijito portugaldarrak bizi izan ziren, txabolatan. Egundenda dugun tokian kapera egon zen eta euretako bat hemen bataiatu zuten. Etxeei dagokienez, lehenengo Antonino Oraa egin zen, gero Irastortza etxea eta azkenik Leturiatarren plaza. Argixao lehenago egin zen. Goiko eta beheko mutil gazteak elkarri harrika, animaliak bezala, ibiltzen zirela gogoratzen dut. Gizon bati esan genion eta beraiek ez zirela harritzen erantzun zigun. Euren herrietan normala omen zen”.

Aurrerantzean ordura arte ezagutzen ez zituzten gauza asko ikusi zituzten Zumarraga goialdeko euskaldunek. “Etxepean pertsona berria sartzen bazazu, bizimodua aldatu egiten da. Gehienek

erdaraz hitz egiten zuten, baina beraiekin erdaraz egiteko jakin egin behar!”, dio umorez. “Ama saiatzen da eurei euskara irakasten, baina...”, aipatu du alabak.

Arantxak oso serio hartzen du gai hau. “Duela gutxi pertsona batek kargu hartu dit kontu honengatik eta euskalduna da gainera. Ez da gu bezala bizi izandakoa... Erdaldun baten aurrean euskaraz egitea edukazio falta dela esan zidan. Entzun egin behar! Haserretu egin ginen... Nik erdaraz jakin ez eta niri aurpegira hori bota?”.

Berak aipatu bezala, erdaldunez inguraturta bizi izan den arren, Arantxa Aranzadik ez du erdaraz ondo hitz egiten oraindik. “Nola edo hala moldatzen naiz, baina gabestia handia dut. Gaztetan baserritik dezente irteten nintzen, azokara-eta, baina erdaraz hitz egiteak lotsa ematen zidan. Hori dela eta, erdaldunei sinistu egiten diet euskaraz egiteak lotsa ematen diela edo ikastea kosta egiten zaiela esaten didatenean”.

Beste batzuk, berriz, ez ditu ulertzen. “Separatistak garela eta handiagoak entzun izan ditut, eskolako autobusaren zain geundenean haurrei euskaraz egiten nielako. Alaba gazteena bakarrik joan zen ikastolara eta auzoko ia bakarra zen”. Alaba amaren alde atera da. “Orain marokarrak-eta etorri dira eta lehen aipatutako batzuek gutxietsi egiten dituzte, baina orain etorritakoak irekiagoak dira eta ikasteko gogo handiagoarekin heldu dira”, dio. “Haiek ere etorkinak dira. Euskaldunon



Arantxa Aranzadi eta Kizkitza Zendoia, euren oihal-dendan.

bihotza zabala izan da. Gehiegi...”, gehitu du amak.

Hala, auzoa bereziki erdalduna dela pentsatzen da. Dena den, ez da hori jendeak auzoari buruz gehien esaten diena. “Oso urruti dagoela aipatzen digute batez ere”, esan du Kizkitza Zendoiak. “Ospitalera etortzea tokatzen zaienean gure dendara baino urrutirago joaten direla esaten diet! Jendeak Katangan bizi garela esaten zigun, mesprezuz. Horrek amorrua ematen zidan”, dio Arantxa Aranzadik.

Honen guztiaren erru apur bat euskaldunena dela dio. “Ez gara elkartu geurea bultzatzeko. Nik euskaldunekin elkartzeko joera izan dut, baina erdaraz ez dakidalako izango da”... Dena den, gauzek hobera egin dutela dio. “Auzoan gero eta haur gehiago entzuten da euskaraz hitz egiten eta horrek poz handia ematen dit”.



## Lourdes Odriozola: “Erdaldun giroan hazi ginen eta Azpeitian, baserrian, ikasi genuen euskaraz ondo hitz egiten”



Lourdes Odriozola, Toki-Alai jatetxean

Lourdes Odriozolaren aita zumarragarra da, baina haurra zela gurasoak Errezilera joan ziren. Ama, berriz, azpeitiarra da. Duela 50 urte aita Orbegozon hasi zen lanean eta familia Zumarragara etorri zen. Arantxa Aranzadiren bizilagunak izan ziren. Antonino Oraako etxebizitzak egin zirenean horietako bat eta lokal bat erosi zituzten. Bertan amak Toki Alai jatetxea ireki zuen. Lourdes Zumarragan jaio zen. Ama gaztetatik ostalaritzan aritutakoa da eta oraindik, 87 urterekin, tabernako lane-tan laguntzen du goizero eta gauero. “Gaztetan Casa Nicolasa jatetxean lan egiten zuen eta gero ere ostalaritza munduan aritu zen. Hori dela eta, Zumarragara etorri zenean taberna irekitzea erabaki zuen. Orduan ez zegoen ia ezer auzo honetan”, dio Odriozolak.

Anaia zaharrena Azpeitian jaio zen, baina bera eta gazteena Zumarragan. “Auzo honetan ez zen euskaraz deus hitz egiten. Etxean ere gutxi egiten genuen. Izan ere, tabernako bezero guztiak erdaldunak ziren eta baita gurekin lan egiten zuen neska ere. Erdaldun giroan hazi ginen eta Azpeitian, baserrian, ikasi genuen euskaraz ondo hitz egiten. Azpeititik hona sekulako aldea zegoen. Hemen ohitura batzuk ezagutu genituen eta han beste batzuk. Azpeitin Extremadurako guztiek ikasi dute euskaraz eta hemen guk ikasi behar genuen erdaraz”, dio.

Anaia zaharrena han jaio zenez, euskara ondo ezagutzen zuen Zumarragara etorri zirenerako. “*Sí* eta *no* hitzak bakarrik ezagutzen zituen eta *Hermanotan* hasi zenean maisuek egurra eman zioten. Hori dela

eta, ez zuen eskolara joan nahi. Azkenean Loiolako barnetegira bidali zuen. Han jaio-takoa zen eta ondo moldatu zen”.

Amak, berriz, Donostian ikasi zuen gazte-leraz hitz egiten. “Hona etorri zenerako gazte-leraz ondo zekien. Donostian Francori ere zerbitzatu zion... Zerbitzari-erri datuak hartu eta ondoren Aietera eskolatu-erri eramatzen zituztela gogoratzen du”.

Azken 50 urteak, berriz, Zumarragan eman ditu. Antonino Oraa kalean bizi da oraindik. Lourdesek gertu du bere etxebizitza: Joxe Migel Barandiaran kalean. Azken hamarkadetan Zumarraga goialdea asko aldatu dela dio. “Berririko kanpoko jendea etortzen hasi da eta euren eta garai batean etorritakoen ondorengoek euskaraz hitz egiten ikasi dute. Euskaraz hitz egiten entzuten zaie gainera, e!”.

Inguru hura ere euskalduntzen ari da, beraz. “Garai batean Katanga eta halakoak entzun behar izaten genituen, baina azken urteotan jende asko etorri da behetik. Gazte euskaldun asko, tartean. Lehen Katangan bizi ginela esaten zutenak hona etorri dira... Halakoa da bizitza”, aipatu du. Sekula ez du mestizaiaren gai honetaz hitz egin bizilagunekin, nahiz eta beraiekin harreman ona duen. “Ez gara halakotaz aritzen, baina garai batean etorritako askok bere jaioterria nahiago dutela ikusten da. Noizbait mesprezuren bat jasan behar izan dugu, baina denekin bizi beharra dugunez, ez entzunarena egin eta aurrera. Hobe halako hika-miketan ez sartzea”.



## Ana Mari Amilleta: “Garai batean euskaldun guztiok elkar ezagutzen genuen, baina egun denok nahastuta gaude”

Leturiatarren plazan 200 etxebizitza baino gehiago daude. 1.000 lagun inguru joan ziren beraietara bizitzera eta horiek guztiek zerbitzuak behar zituzten, noski. Hori dela eta, kontratistak bertan lokala eskaini zien Aranburu familiako harakinei. 1969an ireki zuten harategia. 1990. urtean Anjel Aranburuk eta Ana Mari Amilletak hartu zuten ardura eta egun euren seme Juanjok darama negozioa.

Amilletak ondo gogoratzen du Leturietara lanera igo zireneko garaia. “Ordurako Zumarragako plazan eta Kalebarrenen harategi bana genuen. Behetik gora ez genuen alde izugarririk nabaritu. Izan ere, ordurako behean kanpotar jende asko zebilen eta eurekin tratatzera ohituak geunden. Segituan nabaritzen zen nor zen bertakoa eta nor kanpokoa”.

Ana Mari Amilletak umetan izan zuen lehen hartu-emana etorkinekin. “Gure baserria oso urruti dago, Aginagara bidean pasatzen den errekatxo batetik kilometro eta erdi gora. Beheko baserrian, Leturia behekoan, kanpotik etorritako 15 bat familia izan ziren. Bakoitzak txoko txiki bat zuen eta elkarrengandik bereizteko gortina besterik ez zuten. Han zeuden batzuek ardoa txanbiletan igotzen zuten aste osorako eta mozkortuta topatzen banituen beldurtu egiten nintzen. Sekulako buelta ematen nuen beraiekin topo ez egiteko. 8 urte besterik ez nituen eta gurasoek herrira bidaltzea erabaki zuten, izebarengana”.

Umetako oroitzapen txar hori duen arren,



Ana Mari Amilleta, harategi aurrean.

etorkinekin oso harreman ona izan duela dio. Euren harategian asko ezagutu ditu. “Hemen goran bi eskuetako behatzekin kontatu zitekeen euskaldun kopurua. Garai batean euskaldun guztiok elkar ezagutzen genuen, baina egun denok nahastuta gaude: elkarrekin ezkondu. Lehen sarritan esaten ziguten *háblame en cristiano*, baina dagoeneko ez da halakorik entzuten. Batzuk itxi-itxiak dira oraindik eta horiek hala joango dira mundu honetatik, baina beste batzuek euskara hemengo dela eta errespetatu egin behar dela ulertzen dute. Lehen dena erdaraz egiten zuten batzuek, euskaraz agurtzen gaituzte. Gainera, ume txikiak dituzte eta euskarazko hitz asko ulertzen dituzte jada”, aipatu du.

Etorkinen ondorengoak hemengora hobeto moldatu direla nabaritu du. “Lehen

belaunaldikoak euren jaioterrietako etxetara joateko irrikitan izaten dira, baina euren ondorengoek bisitan joatea bakarrik atsegin dute. Gazteak hemengoak dira eta euskaraz hitz egiten dakite. Beste batzuk, berriz, euskaraz ez dakitelako penatuta daude”, azaldu du.

Auzoa dezente aldatu da, beraz. Hala ere, erdaldun ospea du oraindik. “Jende nagusiari goiko hau beste herri bat dela iruditzen zaio, baina inguru honetara beheko euskaldun familietako seme-alabak etorri dira. Garai batean, ordea, Katanga deitzen zitzaion. Senitartekoez ez zidaten ezer esan, baina *hau han nola moldatuko ote da?* pentsatuko zuten. Kanpokoez halako gauzak galdetu zizkidaten eta familiakoez minik ez emateagatik ez zidaten galdetu”.

Garai hartan auzoa Katanga deitzeko modukoa al zen galdetu diogu. “Zenbat eta gutxiago ezagutu, orduan eta gehiago esaten dira halako gauzak. Kanpotarrek ere zer uste dute dagoela Euskal Herrian? Hona etortzen denak, gainontzeko tokietan bezala, jende ona eta txarra dagoela ikusten du”, azaldu du Amilletak.

Guztiak elkarrekin bizi badira ere, euskaldun batzuek gainontzeko euskaldunengana jotzeko joera dutela dio. “Euskaldun batzuk elkarrekin joaten dira paseatzera. Agerikoa da eta normala, gainera. Izan ere, gainontzekoekin gaztelaraz egin behar dute eta hori adineko pertsoneri asko kostatzen zaie”.



## Gurutze Murua: “Erdaldunekin ere ondo moldatzen gara, baina batzuek ez zuten ulertzen nik harakinarekin euskaraz egitea”

Gurutze Murua eta bere senarra euskaldun peto-petoak dira. Bata Ormaiztegiakoa eta bestea Gabiriakoa dira. Senarrak Forjas de Zumarraga enpresan lan egiten zuen eta bertara etortzea erabaki zuten. Leturiatarren plazan erosi zuten etxebizitza. “Salneurri egokia zuten eta bertara etortzea erabaki genuen. Oso euskaldun gutxi geunden etxe hauetan. Bagenekien oso auzo erdalduna zela, pareko etxea gurea baino urtebete lehenago egin baitzuten. 1969an etorri ginen eta berehala nabaritu genuen aldea. Hizkuntzaz gain, ohiturak ezberdinak ziren. Janari-dendan, adibidez, eurek eta guk erosten genituen gauzak ezberdinak ziren”.

Dena den, bizilagun batzuekin oso harreman ona izan dutela dio. “Aldamenean Salamancakoak eta Extremadurakoak ditugu eta primeran moldatu gara beti. Salamancakoak erretiratu zirenean euren jaioterrira itzuli ziren, baina hilero hitz egiten dugu. Euren semeak Lazkaon bizi dira, baina noiznahi etortzen dira eta etxe-koak bezala dira guretzat. Errespetu handia diogu elkarri. Hala behar da”.

Hala ere, jaisteko asmoa izan dute urte askotan. “Pentsatu izan dugu, baina dirua behar: hiru seme-alaba, euren ikasketak... Jada ez dugu beste giro baten bila irteteko asmorik. Urretxuk asko tira egin digu. Zumarragan bizi ginen, baina Urretxuko girora joaten ginen beti”.

Erdaldunekin ahalik eta hobekien moldatzen saiatu diren arren, auzoko euskaldunekin elkartzeko joera izan dute. “Dendan



Gurutze Murua, bere etxe bakoian.

gaudela, kalean... beti hitz egiten dugu elkarrekin. Izan ere, euskaldunekin hurbiltasun gehixeago nabaritzen dugu. Erdaldunekin ere ondo moldatzen gara, baina batzuek ez zuten ulertzen nik arrain-saltzailearekin edo harakinarekin euskaraz egitea. Zergatik egin behar dut erdaraz haiekin eurak ere euskaldunak badira? Batzuek erdaraz egiteko esaten zidaten eta kanpotik etorritakoak eurak zirela eta euskaraz ikasteko erantzuten nien. Ez zuten ondo hartzen eta beraiek gehiago zirela esaten zuten. Kataluniara joateko esaten nien...”.

Gurutzeren seme-alabak Kataluniara ez, baina herriaren behealdera joaten ziren. “Auzoan ondo moldatzen ziren, baina koadrila behean zuten. Garai hartan auzoan haur asko zeuden eta etxe azpiko pla-

zan jolasten zuten. Auzokoek etxe-ko lanak noiz egiten zituzten galdetzen zidaten. Izan ere, ingelesa-eta zirela, eurek ez zuten jolasteko asti handirik”.

Umeak koxkortu egin ziren eta auzoa ere aldatu egin zen. “Egun inork ez dit ezer esaten harakinekin euskaraz egiteagatik. Hobera egin dugu. Egoera nabarmen aldatu da. Erdaldunen umeek eskolan euskaraz hitz egiten ikasi dute eta horrek lagundu egingo zuela pentsatzen dut”.

Auzoan gero eta euskaldun gehiago dago, beraz. “Katekesia ematen dut eta lehen mailan 10 umez osatutako euskarazko taldea dut. Gaztelerazko taldean, berriz, 18 haur daude. Auzo honetarako ondo dagoela uste dut. Lehen familia euskaldunetakoak bakarrik joaten ziren euskarazko taldera. Nik guraso euskaldunak dituzten hiru haur eta erdaldunak dituzten bost ditut. Beste bien kasuan, aitak edo amak, bietako batek, euskaraz daki. Haur gehienek dakite euskaraz, baina guraso euskaldunak dituztenen eta ez dituztenen artean aldea dago. Lehenengo euskara garbiagoa da. Besteei zuzentzen eta laguntzen saiatzen naiz”.

El Salvador aldatu bada ere, garai bateko kontuak entzun behar izaten dituzte oraindik. “Makina bat aldiz entzun ditugu *maketolandia* eta halakoak. Beheko jendeak hemengoak gutxiagotzat hartzen gintuen, baina gaizki ez hartzen saiatu naiz beti. Ez zait auzoan bertan kontu honetaz guztiaz hitz egitea gustatzen. Ni errespetu naziela eta nik errespetatuko ditut”.



# UROLA

## ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

# ATA

## HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA

# MURUA

## Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

## centro óptico

# JAVIER Arratibel

## optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

## Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren  
aplikazio teknikoak


Ipeñarrieta, 48  
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41  
Urretxu-Zumarraga  
www.egumendi.com  
egumendi@egumendi.com

# Keros

## Enmarkatzeak

Arte ederrak  
Dekoraizoa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



# SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



# Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak  
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90  
☎ 615 75 33 28  
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

# PLAZAOLA

## ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



# Lanbrea

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

## HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



# natural optics

## URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu  
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68  
urretxu@naturaloptics.com  
www.naturaloptics.com

# asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN  
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu  
943 72 59 22  
659 67 89 79



# ALTZARIAK

## MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28  
URRETXU



# TABERNA

## JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

# PREMANK

## KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU  
ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA  
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixio industrialdea, 55 pabiloia  
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)  
943 72 41 00  
administracion1@premank.com



# Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf: 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@cmendiola.com  
www.cmendiola.com



# Darmanki

## Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU  
☎ 943 72 25 13



# belarzoim

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

# BIONA

## AROTEGIA

Altzariak neurriera

☎ 943 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU



# ALEX-KIBOLAK

alejandro aiblsua

☎ 943 72 52 22  
Soraluze, 6 - Zumarraga

# Otamotz

Herri Aldizkaria

## TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



## komikia


60 gramo pisatzen dituen gizonaren memoriak urriak dira. Hain gorputz txikian ez dago toki handirik, garuna ere tamainan du beraz. Dioenez, berak honela nahiago. Bizitza toki eroso eta ederragoa egiten baitute hutsune horiek...



## egurra partitzen

Jon Torner  
Jon Ormazabal

### Mankomunitateaz



Zinez interesgarria iruditu zitzaigun eskuartean duzun hilabetekari honek Urola Garaia mankomunitatearen inguruan egindako azterketa sakona. Izan ere, sarri entzun eta erabili ditugu, Ugassa, Lenbur, UGLE edota Zumarraga Lantzen bezalako erakundeen izenak, zehazki zertaz ari garen oso ondo jakin gabe.

Ziurrenik gure errua izango da, ez dugu Asier adiskidearen luma zorrotza edo elkarrizketatuen komunikazio gaitasuna ezbaian jartzen, baina egia esateko, azken Otamotzak birritan irakurri ditugun arren, orain hilabete batzuk bezalaxe gaudela aitortu behar dugu. Esan bezala, arazoa gauzak ulertzeko gure gaitasun urrian egongo da, baina UGLEren salbuespenarekin –hor argi daukagu gazteak lan merkatuak prestatzen dituztela– beste erakunde horiek guztiak edukirik gabeko funtzionario kontainerak iruditzen zaizkigu. Ekonomian analfabeto hutsak garen arren, alkate

batek erabilitako *plan estrategikoa* ezer esan nahi ez denean erabiltzen den komodina iruditzen zaigu eta bestearen goierritarrizazio proposamenak ere ez gaitu ba gehiegi konbentzitzen.

Konponbideak bilatzea behartzen ez gaituen talaia honetatik gure ikuspuntua baino ez dugu azaldu nahi. Gauza da, ingurura begiratuta, gure gurasoei gertatu ez bezala, oso gutxi direla herrian lan egiteko aukera duten lagunak. Betidanik industrialak izan diren herri hauetan, produzitu baino gehiago kutsatu egiten duen Orbegozo, ospitalea eta Ertzaintza dira langilerik gehien dituzten hiru enpresak eta antza denez, aldamenekoari laguntzeko bokazio handirik ez dago gure koadrilan.

Ezertan onak bagara, esateko gutxirekin orriak betetzen gara gu abilak, eta erakunde hauetan halako gehiegi ez ote dagoen susmoa hartuta gaude aspalditik.



## Beitia martxa egiten al duzu? Inoiz egiteko asmorik ba al duzu?



Maria Luisa Alvarez



Ezagutzen dut, baina ez dut parte hartzeko ohiturarik. Dena den, kirola egiten dut. Egunero Aginagako bidegurutzeraino joaten naiz txakurrarekin. Ea egunen baten martxan parte hartuko dudan? Sekula ez diot neure buruari erronka hori jarri. Nire ezagunek egiten dute.

Begoña Salamero



2001ean egin nuen lehen aldiz eta ordutik urtero parte hartu dut. Laburra osatzen dut eta oso gustura, gainera. Oso giro ona izaten da. Lagunekin joaten naiz eta aurten nire alabak ere parte hartuko du. Senarra, berriz, luzea egitera animatu da. Gogor ari da entrenatzen.

Mikel Soria



Ez dut mendi martxa egiteko ohiturarik, baina oso ondo antolatuta dagoela eta giro ona egoten dela esan didate. Jendea behintzat pozik jaisten da. Mendikoa baino gehiago tabernakoa naiz. Ez dut martxa egiteko asmorik, epe laburrean. Aurrerago, nork daki! Nire inguruan jende dezentek egiten du.

Manex Buron




Ez dut sekula parte hartu. Gainera, lanean aritu beharra izan dut beti eta ez dut aukerarik izan. Dena den, ez naiz batere kirolzalea. Mendira gehiago joatea komeni zait, baina... Beno, Irimo aldera joaten naiz batzuetan eta txakurrak paseatzera ere ateratzen naiz.



## Gaia: Ametsak

### Doinua: Sorlekua utziz gero

Amaia Iturriotz



Amesgaiztoak esnatu  
nau bart izerditan mela,  
amak lasaitu egin nau  
emanez bere epela.  
Gaua igaro ostean biok  
igaro dugun bezela  
amak gehiago ez du entzun nahi  
amestea libre dela.

Amona ohe zurian  
agertzen zen guztiz eri,  
niri so eta nor nintzen  
ez zen ohartzen gehiegi.  
Negar malkotan itzarri zaizkit  
lo faltan zeuden bi begi,  
joe, eskerrak usu ez diren  
bihurtzen ametsak egil!

Guztiz ahazten dira maiz  
eginiko amets denak,  
baina oraindik gehiago  
amestu nahi badu senak  
amets berriak sortzen ditugu  
egunez jende gehienak,  
gure ametsik ederrenean  
nekez beteko direnak.

## iritziz iritzi

Ibon Garmendia



### Garapen jasangarria Vs. eguneroko ohiturak

Gazteak oso aurrerakoiak gara, heziketa egokia jaso dugu eta erabat kontzientziatuta gaude gure ingurumenarekin; baina gure ohiturak ez direla hain jatorrak iruditzen zait. Gure aitona-amonek gutxiago kontsumitzen zuten, bizimodua ere halakoa izan zutelako, baina egia esan gure behar materialen erdiak ere ez zituzten. Gure belaunaldikoak ogia, fruta edota arraina erostera poltsarik gabe joaten gara, baina gure etxeok *kanpazoa* edo ogiaren telazko poltsa beti izan dute aldameanean. Guk, ordea, dendan ematen diguten plastikozko zorroa eta papera ondo jaso eta birziklatzera botatzen dugu, eta gainera kontzientzia ekologikoa puri-puritan jartzen zaigu. Higienearen izeanean kleenex-ak erabiltzen ditugu mukizapien

ordez, umeentzako paperezko pardelak garai bateko gasazkoen ordez edota festetan plastikozko edalontziak erabiltzen ditugu eguneroko kristalezkoen ordez. Gero eta higienikoagoak baikara!!! Duela gutxi etxeko DVDa hondatu zaigu eta bigarren bat ekarri dugu konpontzea garestiago irteten zaigulako. Ez al dugu dena *usar y tirar* lelopean erabiltzen? Duela ez askora arte luze irauten zuten gauzek kalitatea frogatzen zuten. Kotxe batek 20 urte iraun zitzakeen, egun ez da segurua eta askorentzat estetikoki eta jendearen aurrean ez da jasangarria. Gure bizimoduak ez dakit nora eramango gaituen baina garapen jasangarri eraginkor bati ekiteko agian atzera begira hasi behar ko ez ote dugun susmoa daukat.



## 1965

### *Pilota txapelketa*

Argazkian Goierri kirol elkartearen 1965eko lau t'erdiko pilota txapelketako sari banaketa ikus dezakezue. Ezkerretik eskuinera: Jose Inazio Aramendi elkarteko presidentea, Pablo Areizaga, Don Manuel Beraza parrokoa, Jesus Iturbe pilota saileko arduraduna eta Elias Pierola txapelduna. Pierola nafarrak 19 urte eman zituen profesional mailan eta 1978ko binakako txapelketa irabazi zuen Antxon Maizekin.





# Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



## ALBISTEAK

1. Urretxura ekarri zuten Segurola, hiletara.  
(Politika/03-31)
2. Joseba Garmendia auzipetu du Garzonek  
(Politika/04-01)
3. Ameslariak nagusi Gaztelekun.  
(Kultura/03-16)
4. Xake nobela, idatzita.  
(Kirola/04-01)
5. UZUEn irakasle plaza bat.  
(Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegia/Edotarikoak/04-08)
6. Aberri Eguna elurtsua gure herriotan.  
(Gizartea/03-23)
7. Hauteskundeak Urola (Goierri) Garaian.  
(Mikel Asurmendi/Iritzia/04-08)
8. Agerikoa izan arren.  
(Igor Susaeta/Iritzia/04-06)
9. Ikusmin handia sortu du larunbateko koadrilen arteko desafioak.  
(Kirola/04-09)
10. PSE-EEK Urretxun EAE-ANVrekin akordiorik ez duela dio.  
(Politika/04-08)

## AZKEN BIDEOAK

1. MB: Bertso musikatuak (1, 2, 3 eta 4).
2. MB: Bertso finala (1, 2 eta 3).
3. MB: Gu ta gutarrak taldearen kontzertua.
4. Pazko Bigarrenko jaia.

## ALDIZKARIA

1. Iñaki Zabala: "Eskualde hau desegituratuta dago".  
(Elkarrizketa/135. alea)
2. Eduardo Elias.  
(Boteprontoan/135. alea)
3. Joseba Garmendiari kartzelatik elkarrizketa.  
(Elkarrizketa/94. alea)


## INKESTAK

### Nondik sartzen zara Otamotz.com-era?


- Lanetik: %56
- Etxetik: %34
- Beste toki batetik: %8
- KZ gunetik: %2

### Zein nota jarriko zenioke Otamotz.com-i lehen urtebetetzean?

- Oso ongi: %40
- Bikain: %30
- Gutxi: %14
- Ongi: %12
- Nahiko: %4







Argazkia: Alex Larretxi.

Karmele Jaio

Zu bezain ahul

*Hamabost zauri* irakurri ondoren, ezinezkoa egin zait *Zu bezain ahul* liburua eskutian ez hartzea. Karmele jaio itzala uzten duten idazle horietakoa dugu. Gasteiztar honen inspirazio iturria bizitza bera da. Hirugarren honek berezitasuna badu, istorio gehienak bigarren pertsonan idatziak direla da; zure kontzientziari zerbait esan nahiko balio bezala. Eta guztien artean lotura sendo bat: giza harremana. Beti

dago bigarren aukera bat. Nahiz eta askotan zuk zeuk galdu bigarren aukera hori izateko aukera. Jakin badakizu, gizakia ahula dela. Eta ahulezia horretaz irakasteko modu bat izan daiteke liburua. Zu bezain ahul. Aukera duzu, 15 istorioetan ez bada, bakarren batean behintzat zeresana izateko. Ez zaitu mutu utziko. Ez izan beldur. Ez izan ahul.

Araiz Padrón


Nick Cave &amp; The Bad Seeds

Dig, Lazarus, Dig!!!

Musikaren bidez emozioetara iristeko bideak anitzak dira. Eta Nick Cavek gehienak menderatzen ditu. *Grinderman* aurreko proiektuarekin punk eta rock sukarrak zikina baliatu zuen australiarrek. *Dig, Lazarus, Dig!!!* disko berrian ez da guztiz itzali gitarra riff indartsuen oihartzuna, baina lehenago jorraturiko soinetara itzuli da hein batean. Egiten duena egiten duela ere, emozioen gailurretik gertu ibili

ohi da Cave. Lehen entzunaldian igartzen zaila den edertasuna du lanak, balada ilun eta pasarte umorezkoak tartekatuz. Erljioa, sexua, drogak, Amerikako Estatu Batuak... obsesio zaharrak jantzi berriez. Soinu eta hitz jario kontrolagaitza egungo musikagile, kantari eta sortzaile handienetakoaaren eskutik. Eta hilaren 24an Donostian izango da...

Gorka Erostarbe



Sam Garbarski

Irina Palm

*Irina Palm* katalogatzea ez da batere erraza, drama arina, tragikomedia, komedia beltza... eta beharbada hoberena ez saiatzea da. Batzuk Full Monty-ekin antzekotasunak aurkitu dizkiote, baina hark komediarantz askoz gehiago jotzen du eta *Irina*-k, ordea, drama soziala, komedia eta amodioa nahasten ditu. Filmaren bilakaera pertsonaien deskribapen zorrotzean oinarritzen da. Alde batetik protagonista den emakume-

aren erreakzioetan eta bestetik, eta batez ere, bere ingurukoetan. Argumentuaren bilakaera begien bistakoa bada ere, horrek ez dio batere meriturik kentzen. *Irina Palm*-en indarra, pertsonaia nagusiaren bilakaeran eta mantentzen duen maitasun istorio zoragarrian (filmaren gai nagusi bihurtu gabe, beti ezkutuan mantenduz) baitago. Ostiralean, Zelai Ariztin.

ButaK 21 zineklub taldea





▼  
Udaberriko koloreak.

*Carlos Mediavilla*







# Lourdes Idiakez: Ezkioko organisten kastakoa

*Lourdes Idiakez Goiargi abesbatzako lehendakariak musika odolean darama. Birraitona eta aitona Ezkioko organistak izan ziren eta Juan aitak, 86 urterekin, instrumentu hori jotzen du oraindik bertako elizan. Bere hiru seme-alabei musika irakatsi zien. Lourdesek pianoa jotzen daki eta hasiera-hasieratik dago Urretxu eta Zumarragako abesbatzan.*



Lourdes Idiakez, Zelai Arizti parkean, atzean Goiargi abesbatzako kideak dituela.

## **Ezkion ala Zumarragan jaiotakoak al zarete?**

Zumarragan. Eliz-Kalen. Aita Ezkiokoa da eta ama Urretxukoa. Zumarragara ezkondu ziren. Aitak Patricio Etxeberria enpresan lan egin zuen ezkondu aurretik. Eibarren ere aritu zen eta gero Orbegozon hasi zen. Enkargatua zen eta Agurainera bidali zuten beste batzuekin batera hango lantegia martxan jartzera. Hiru hilabeterako joan zen, baina azkenean gelditu egin behar. Hara joan ginen bizitzera. Ahizpa zaharrena orduan ezkondu zen eta anaiak Orbegozon lan egiten zuen eta Agurainera bidali zuten. Nik 15 urte nituen eta niretzat oso gogorra izan zen. Dena den, bi urte bakarrik eman nituen bertan. Ondoren Eskoriatzara etorri nintzen maisutza ikastera. Arrasaten bizi izan nintzen, ahizpa bertara ezkondu baitzen. Handik herrira itzuli nintzen.



### **Arrasaten Agurainen baino hobeto moldatuko zinen.**

Egia esan, negarrez joan nintzen eta negarrez itzuli nintzen. Agurainen ez nuen herri txiki batean egiten den bizitza egin. Izan ere, Gasteizen ikasten genuen eta aste bukaeran herrira itzultzen ginen.

### **Nola oroitzen dituzu Agurainera joan aurreko urteak?**

Haurtzaroa oso polita izan zen. Aitak etxean solfeo eta eskusoinu eskolak ematen zituen eta hiru anaia-arrebok bere gainontzeko ikasleekin batera ikasi genuen. Urola orkestran ere jo zuen. Etxean eskusoinua eta pianoa zituen. Asko entseatzen zuen. Ama afaria prestatzen, aita pianoa jotzen eta ni etxerako lanak egiten egoten ginela oroitzen dut. Ez ditugu ikasketa ofizialak, nahiz eta anaia Bikondoarekin aritu zen eta nik Arrasaten ikastaro pare bat egin nituen. Pianoa jotzen badakit.

### **Ama ere musika zalea al zen?**

Abestea asko gustatzen zitzaion, nahiz eta sekula ez zuen solfeoa ikasi. Asko abesten genuen. Aitak Odriozola autoeskolakoei Seat 600 bat alokatzen zien oporretara edo igande-pasa joateko. Autoan bostok abesten joaten ginen. Musika eza-gupenik izan gabe ahots ezberdinetan abesten ausartzen ginen. Euskal kantak abesten genituen. Gero abesbatzetan hasi ginen eta behar bezala abesten ikasi genuen.

### **Zein abesbatzatan hasi zinen?**

Institutuan nenbilenean Urretxuko parrokiako abesbatzan abestu nuen. Arrasaten bizi nintzen urteetan hango koruan abestu nuen eta gero Goiargin hasi nintzen.

### **Hasieratik al zabilta Goiargin?**

Bai. Poz handia eman zidan herrian abesbatza sortu behar zela jakiteak.

Arrasatetik etorri berria nintzen, baina bertako abesbatzan jarraitzeko asmoa nuen. Orduantxe Maite Palaciosen eta Bixi Gartziandiaren deia jaso nuen.

### **Aita ere abesbatzetan aritutakoa al da?**

Ezkion bere aitak organoa jotzen zuen eta berak abestu egiten zuen. Aitari askotan entzun izan diot 9 urte zituenean Bartzelonako emakume batek berarekin musika ikastera joatea eskaini ziola.

*“Ama afaria prestatzen, aita pianoa jotzen eta ni etxerako lanak egiten egoten ginela oroitzen dut”*

Ezkioko Ama Birjinaren mirariaren garaia zen eta emakume hari asko gustatu zitzaion nonbait nire aitaren ahotsa. Bere aitak ez zion joaten utzi eta aukera ederra galdu zuela esan ohi du.

### **Zuk, ordea, ez duzu abesteko aukerarik galdu. 25 urte daramatzazu Goiargin.**

Asko jaso dut. Arrasate Musical abesbatzan hasi nintzen teknika ikasten, baina Goiargin ikasi dut dakidan ia guztia. Dena den, oraindik ikasten ari gara... Bestalde, lagun asko egin ditut. Lan mundutik eta koadrilatik aparte, beste lagun talde bat egin dut. Goiargik oso bizipen politik eman dizkit. Abesbatzari esker momentu txarretan babes handia sentitu dut.

### **Gaia aldatuz, urte gogorra tokatu zaizu lehendakaria izateko...**

Urte berezia tokatu zait, bai. Dena den,

kargua hartu dudanerako 25. urteurreneko ekitaldiak prestatzen hasiak ginen. Iaz Aitor Gastañares izan zen lehendakaria. Urtero aldatzen dugu.

### **Zein da lehendakariaren lana? Abesbatza batez hitz egiten dugunean zuzendariak gogoratzen gara beti.**

Egia esan, lehendakaria, lehendakariordea eta diruzaina ditugu, baina denon artean lan egiten dugu. Lehendakaria eta lehendakariordea bileretara joaten gara, baina gainontzeko guztia denon artean egiten dugu. Aurten lan handia dugu eta denok oso mobilizatuta gaude. Izan ere, iaz erronka handiak ezarri genizkion geure buruari.

### **Zeintzuk dira erronka horiek? Zer ari zarete prestatzen abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko?**

Liburu bat idazten ari gara, argazki erakusketa ireki behar dugu, CD bat grabatu nahi dugu... Horrekin guztiarekin ari gara, baina dagoeneko indar asko gatatatu dugu diru bila. Udalek zer edo zer emango digute, baina ez eskatu dugun guztia noski. Hori dela eta, CDa datorren urterako utziko dugu.

### **Noiz irekiko duzue argazki erakusketa?**

Zumarragako jaietan, gutxi gorabehera. Bertako kultur etxean urte hauetan guztietan ateratako argazkiak erakutsiko ditugu. Aukeraketa egiteak, sailkatzeak eta digitalizatzeko lan handia suposatzen du. Ahal duguna egingo dugu...

### **Nolako izango da liburua?**

Alex Areizaga ari zaigu laguntzen. Mundu hori gustatzen zaio eta berarentzat erronka polita da. Gure bizipenak bildu nahi ditugu. Horretarako abesbatzako kide bakoitzari zer edo zer idazteko eskatu diogu. Bere garaian liburua





Golargi abesbatza 1991. urtean Antion.

idaztea erabaki genuen, baina dardarka gaude. Festetarako argitaratu nahi dugu, baina oso denbora gutxi gelditzen dela iruditzen zait. Oraindik ez ditugu atalak zehaztu, baina gure ekintzek, entseguen deskribapenak, anekdotek, bizi-penek... tokia izango dute. Gainera, zuzendariari eta gure jarraitzaile batzuei elkarrizketak egin nahi dizkiegu.

**Bestalde, apirilera sekulako ekitaldiak antolatu dituzue. Apirilaren 5ean Donostiako Orfeoia etorri zen, 20an Pasaia Musical abesbatzaren emanaldia izan zen eta 26an Tirri Tarra orkestrarekin abestuko duzue. Zer azpimarratuko zenuke ekitaldi bakoitzari buruz? Donostiako Orfeoikoei Urretxuko eliza asko gustatu zitzaion.**

Hala da. Dirudienez, lehendik ere ezagutzen zuten. Bai guretzat eta bai gainontzeko herritarrentzat oso aukera polita izan da. Askok kostatu zaigu Orfeoia ekartzea eta Aldundiaren laguntzarekin lortu dugu. Oso pozik gaude.

**Zer diozu Pasaia Musical abesbatzari buruz?**

Kutxaren bitartez ekarri dugu, gure zuzendariak aholkatuta. Iazko Espainia mailako abesbatza lehiaketa irabazi zuten eta oso talde gaztea da. Oso talde interesgarria da eta asko ikas daiteke beraiei entzunda. Aurten *Gran Premio de Canto Coral* lehiaketaren finala Zumarragan izango da, maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean, eta bertan parte hartuko dute. Guk, berriz, itxiera ekitaldian abestuko dugu.

**Bestalde, apirilaren 26an Zelai Arizti parke berria inauguratuko duzue Tirri Tarra orkestrarekin batera.**

Ez dugu askotan izaten orkestra batekin abesteko aukera, Logroñon izan genuela gogoratzen dut. Oso ekitaldi berezia izango da. Izan ere, Tirri Tarra orkestraren musika bera berezia da. Rock sinfonikoa jotzen dute, besteak beste. Beraien *Argi beltza* diskoko kantak abestuko ditugu.

**Aspaldi hasi al zineten emanaldi hau prestatzen?**

Urte hasieran hasi ginen, baina azkenaldian kontzertu horretarako zehazki elkartu gara. Gainera, abesbatzatik kanpoko jendea hartu dugu egitasmo honetarako. Izan ere, jende asko behar da orkestra batekin abestu ahal izateko. Bestalde, herritarrei parte hartzeko aukera eskaini nahi izan diegu. Seguru aski, ez dugu gehiagotan halako lan ori-

*“Jendea abesbatza uzten hasiko da eta atzetik ez dator inor. Jendea erakartzeko formula topatu beharra dugu”*

jinal batean parte hartzeko aukerarik izango. 12 bat lagun animatu dira hilaren 26an gurekin abestera eta oso gustura ari dira. Entsegu orokorra hilaren 20an izan da, Pasaian.

**Nolatan otu zaizue Tirri Tarrakoekin abestea?**

Dagoeneko Donostian, Gasteizen eta Bilbon jo dute eta herri batzuetan ere izan dira. Dirudienez, Zumarragako Udalariren euren ikuskizuna eskaini zioten eta baiezkoa jaso zuten.

**Gaia aldatuz, Goiargin luzaroan jarraitzeko asmoa al duzue?**

Bai, bai... Jarraitu egin nahi dugu eta horretarako jende berria behar dugu. Gure abesbatza zahartzen ari da, baina jendeak ez du ilusiorik galdu oraindik.





Lourdes Ildiákez, bere aitarekin, Ezkioko elizan.

Hala ere, halako batean jendea abesbatza uzten hasiko da eta atzetik ez dator inor. Jendea erakartzeko formula aurkitu beharra dugu. Gu adinean aurrera goaz eta gazte jendea guregana etortzea zaila da. Beldurra emango die... Bestalde, une honetako arazoa gizonezko falta da. Gure atek irekita ditugu zaletasuna duen ororentzat. Asko ikasten da eta giro oso polita dugu. Merezi du. Liburrurako abeslari ohiei elkarrizketak egiten ari gara eta guztiek oso oroitzen politak dituztela esan digute. Urretxuk eta Zumarragak abesbatza galtzea penagarria izango litzateke.

**Zure semeak ez al dira animatzen?**

Bi mutil ditugu, Markel eta Alain. Alaine

bandan eta batukada taldean jotzen du eta Tirri Tarraren emanaldian gurekin abestuko du. Markelek ere bandan jo zuen. Oso pozik nago beraiek ere musikariak direlako. Umetan Goiargi Txiki abesbatzako kideak izan ziren eta gustura abestuko lukete Goiargi abesbatzan, baina ez dute astirik. Izan ere, kirolariak ere badira. Biek eskubaloian jokatzen dute. Alaine Urolan jokatzen du eta Markelek Irungo Bidasoa taldean. Oso ondo doakio. Otsailean Egipton izan zen Espainiako selekzioarekin. Mediterraneoko Jokoetan parte hartu zuten eta irabazi egin zuten. Irunen bizi da eta musika utzi du, egunero entreatu eta ikasi beharra baitu. Bidasoaren

lehen taldearekin entrenatzen du eta jubenilekin jokatzen du.

**Senarrak zer dio? Bera ere musika zaletua al da?**

Gustatzen zaio. Goiargin abestea eskaini izan diot, baina berak ere bere ekarpena egin dio abesbatzari. Izan ere, semeak txikiak zirenean etxean gelditzen zen beraiekin eta ni entsegetara joaten nintzen. Bera etxean gelditu delako joan ahal izan naiz ni abestera. Orain biok dugu abesteko aukera, baina senarraren zaletasun nagusia eskubaloia da. Urolako zuzendaritzako kidea da. Bi fronte ditugu etxean: musika eta kirola. Aste bukaera guztietan eskubaloia partidaren bat ikusten dugu.

**Abeslariak eta kirolzaleak gain, irakaslea zara.**

Legazpiko ikastolan lan egiten dut ikasketak bukatu nituenetik. Dagoeneko 26 urte daramatzat bertan. Egun 3. mailako tutorea eta musika irakaslea naiz. Gustuko lana dut. Irakasleon lana bokaziozkoa izan behar da, bestela umeek asko nekatzen baitute.

**Dioten bezainbeste aldatu al dira haurrak eta gurasoak azken urteotan?**

Izugarri aldatu dira. Lehen gure lana askoz ere errazagoa zen. Gizartea guztiz aldatu da. Gure gurasoek ikasketak gutxiago zituzten, baina baloreak eta mugak zeintzuk ziren oso argi zuten. Egun euren baloreak eta mugak ez ditugula nahi dirudi, baina ordezkoen bila gabiltza oraindik. Mugak ez daude ezarrita eta hori eskolan asko nabaritzen da. Azkenean irakasleok jartzen ditugu, bakoitza bere taldearen arduraduna baita. Guraso askok ez dute hori onartzen. Ez zaizkie guk jarritako mugak gustatzen.



Elkarrizketa hau urtarrileko alean hasitako Urola Garaiari buruzko erreportajearen jarraipena da.

# Joseba Etxezarreta: “Norabide berean bultza egin behar dugu”

*Ezkio-Itsaso Urola Garaiko herri txiki bakarra da. Mankomunitatean behartuta sartu zela esaten da, bestela Barrendiolako urik gabe utziko zutelako. Joseba Etxezarreta alkatea Mankomunitateko presidentea izan zen aurreko legealdian.*

Joseba Etxezarreta, Ezkio-Itsasoko udaletxeko balkoiar





### **Zuena Urola Garaiko herri txiki bakarra da. Eroso sentitzen al zarete bertan?**

Gure egoera berezia da, baina tankerakoak direnen artean ezberdina den bat sartzea ona dela uste dut. Populazioaren zati handia Legazpi, Urretxu eta Zumarragan bizi da eta euren beharrak eta gureak ezberdinak dira, baina orain arte oso ondo moldatu gara. Guganako adeitasun handiz jokatzeko dute eta gairen bat aurkezten dugunean kontuan hartzen da. Guganako begirune berezia dutela esango nuke.

### **Goierrin herri txiki asko daude, baina zuek ez duzue beraz halakoen beharra sentitzen.**

Goierrikoen antz handiagoa ote dugu? Herrian askotan galdetu diogu hori geure buruari, baina udaletxeko mahai honetan sekula ez da eztabaida hori ateratu. Bere garaiko arrazoiak direla medio Urola Garaian sartu ginen eta hor gabilta.

### **Goierrin eta Urola Garaia artean nahi-koa elkarlan al dago?**

Ez dut sakonki aztertu batzea komeniko litzatekeen ala ez, baina garbi daukat elkarlana geroz eta estuagoa izatea komeni dela. Denak zaku berean sartzea baino garrantzitsuagoa da zakuen arteko elkarlan sakona. Denak zaku berean egoiteak ez du ezer bermatzen, eguneroko elkarlanak bai ordea.

### **Nola ikusten duzu Urola Garaia?**

Nire ustez potentzialtasun izugarria du, baina hori garatzeko aukerak aztertu behar dira eta denok norabide berean bultzatu egin behar dugu.

### **Orain arte ez al da halakorik gertatu?**

Arrazoi bat edo beste dela medio, askotan ez. Potentzialtasun handia dugu eta ez diot Mankomunitateko lehendakaria izan naizelako.

### **Zeintzuk dira aukera horiek bada?**

Estrategikoki oso kokapen egokia dugu. Industria mailan aukera handiak ditugu eta komunikazioari dagokionez ere bai. Gainera, komunikazioa etorkizunean funtsezkoa izango da. Giza baliabideak ere baditugu. Denok zentzu berean bultzatu egiteko gai bagara, etorkizun oparoa dugu. Garbi jakin behar dugu nora goazen eta zer nahi dugun. Gutxiengo batzuk

*“Mankomunitateko gainontzeko udalek guganako begirune berezia dutela esango nuke”*

adostu behar ditugu. Bakoitzak alde batera tira eginez gero, indarra galtzen da eta ez da aurrera egiten.

### **Orain arte zergatik ez da behar bezain-beste elkarlanik egon? Zuek, txikiak izanik, beharbada ondo ikusi dituzue arrazoiak.**

Arrazoiak jakingo bagenu, beharbada honezkero irtenbidea izango genukeen. Nire ustez arrazoi politikoak egon dira, baina bestelakoak ere izango ziren.

### **Plan Estrategikoa eskatu da eta badirudi aurrerapausoren bat emateko bidean garela.**

Nora joan behar garen jakiteko balioko du: gure potentzialtasuna, gabeziak eta helburuak ezagutzeko.

### **Nork gidatu behar du hau guztia?**

Plan Estrategikoan argituko da.

Mankomunitateak konpetentzia asko galdu ditu eta niretzat garrantzitsua da gainontzeko erakundeak bultzatzea. Ugisa, Uggasa eta UGLE funtsezkoak izango dira hau guztia aurrera eramateko. UGLE inguruko enpresen beharrak asetzeko sortu zen eta oso lan garrantzitsua egiten ari da. Etorkizunean ere formazioa oso garrantzitsua izango da. Industriak garrantzia handia du inguru honetan eta motore horretarako gasolina UGLEtik aterako da.

### **Zer gertatzen da Lenburrekin?**

Hasiera Legazpirekin identifikatzen zen, baina bere helburuak zabaldu egin ziren eta zabaltzen jarraitu behar dutela uste dut. Eskualde ikuspegia badugu, Lenbur bultzatzea oso garrantzitsua da. Bakoitza bere aldetik gauzak egiten hasten bada, indarrak galtzen dira. Horrek ez du esan nahi Udal bakoitzak funtzionatzeko eta erabakiak hartzeko autonomia galdu behar duenik, baina lau udalerriok helburu komunak ditugun alor horietan askoz ere hobea da erakunde komunak izatea. Denok zentzu berean bultzatzen badugu, Lenburren etorkizuna oparoagoa izango da. Gainera, Urola Garaiak ez du tradizio handia turismo alorrean. Gipuzkoa txikia da eta ezin ditu 15 proiektu ezberdin izan.

### **Herritarrek ba al dute Urola Garaia mailan egiten denaren berri?**

Eskualdeko instituziook ez dugu jakin transmititzen zer erakunde dauden, zer aukera eskaintzen dituzten eta horiek denak herritarren esku daudela. Uggasa, Ugisa... ezezagun samarrak dira kaleko jendearentzat. Jendeak ezagutzen al du egiten den guztia? Ba al daki hori dituela baliabide horiek? Zalantzak ditut.



# Asier Azarola: “Argazkigintza mendiarekin lotuta atsegin dut”

*lazkoa urte oparoa izan zen Asier Azarola argazkilariarentzat. Lehiaketa garrantzitsuak irabazi zituen: ‘Austrian Super Circuit’ eta Club Vasco de Camping eta Ostadar elkarteenak. Gainera, Lloret de Mar-en bere argazki bat hautatu dute liburu baten azalerako.*



Asier Azarola, Santa Barbaran, bere argazkia azalean duen liburua eskuetan duela.

## **Nolatan halako argazki zaletasuna?**

Nire aitak asko atsegin zituen argazkigintza eta mendia. Berarekin joaten nintzen mendira eta argazkiak ateratzera ere zaletu nintzen. Alde batetik Ostadar mendi taldearen irteeretan parte hartzen hasi nintzen eta bestetik argazkigintza ikastera joan nintzen Legazpiko Ikatza elkartera.

## **Natura bakarrik erretratatzeko al duzu?**

Bai. Mendia eta bere argiak atsegin ditut. Argazkigintza hutsa ez dut gustuko, mendiarekin lotuta bakarrik atsegin dut. Ez dut kamera hartu eta edozer gauza erretratatzeko ohiturarik. Jendearen argazkiak ateratzea ere ez zait gustatzen, senitartekoak eta lagunak bakarrik erretratatzeko ditut.

## **Ikatza elkartekoekin ikasi zenuen.**

1998an jo nuen bertara eta beraiekin ikasi dut. Garai hartan egiten nituen erretratuak etxekoei onak iruditzen zitzaizkien, baina adituak hotz uzten zituzten. Ikatzan Migel



Anjel Otsoa de Aldaren eskutik ikasi nuen. Berak irakatsi zidan teknikari, enkoadraketari, argiaren neurketari... buruz. Ez nuen maisu txarra aukeratu, natura argazkilari bikaina baita.

**Zein dohain behar ditu natura argazkilari on batek?**

Oso konstantea izan behar da: askotan joan behar da mendira, eguraldiaren iragarpena une oro kontsultatu behar da eta pazientzia handia izan behar da. Zer edo zer zehatza erretratatzeko denbora asko itxaron behar da.

**Pazientzia itzela duzu. Udazkenean egunero igotzen zara Irimo mendira argi zehatz bat lortu nahian.**

Hala da. Alertzeak kolore oso politak hartzen ditu eta lainoa altu dagoenean sarritan joaten naiz Irimora. Batzuetan alferrik joaten naiz, etxera nahi dudana argazkia lortu gabe itzultzen bainaiz. Dena den, hurrengo eguna nolakoa izango den pentsatzeak ilusioa bizirik mantentzen laguntzen dit. Mendian beti topatzen da zer edo zer berria. Batzuetan ideia zehatz batekin joaten naiz eta interesgarri den beste edo zer aurkitzea ohikoa da.

**Zertan pentsatzen duzu itxaroten ari zaren bitartean? Ez al da aspergarria?**

Zain nagoen hori edozein unetan heldu daitekeela dakidanez, ilusioak asperraldiari aurre egiten laguntzen dit. Nola pasatzen dudana denbora? Unea heldu bitartean paseotxo ematen dut.

**Zeintzuk dituzu mendirik gogokoena?**

Asteburu askotan Pirinioetara joaten naiz. Inguru honetan Urbasa, Aralar, Aizkorri, Bardeak... atsegin ditut. Alpeetan, Irlandan eta Mauritanian ere izan naiz. Toki guztiek dute euren xarma eta unea. Mauritaniara martxoan joan

nintzen eta berandu samar zen. Desertura neguan joan behar da, eguzkia behean dagoenean.

**Bakarrik ala lagunduta joaten al zara?**

Normalean bakarrik joaten naiz. Denbora asko zain pasatu behar dela kontuan izan behar da. Zaletasun berbera eta pazientzia itzela duen norbaitekin bakarrik joan daiteke. Neskalagunarekin joaten naizenean, azkenerako aspertu

*“Diapositibekin gustura lan egiten dut eta ez dut aldatzeko asmorik.*

*Filmak egiteari uzten*

*diotenean aldatuko dut”*

egiten da. Nahiago dut bakarrik joan. Aldamenean norbait behartuta izateak bioi egiten digu kalte.

**Zein da zure ametsetako argazkia?**

Egon naizen toki guztietan atera daitezke argazki hobekak edo ezberdinak. Bestalde, toki askotara joateak egiten dit ilusioa: Patagoniara, Argelia eta Libiako desertura...

**Zergatik uste duzu lortu dituzula horrenbeste sari 2007an?**

Argazkiak zaletasun hutsagatik ateratzen ditut, baina sariak beti dira ongietorriak. Hasi nintzenetik nire lana asko hobetu dela eta oraindik hobetzen ari dela uste dut. Argazkia atera aurretik ikusten ikasi dut.

**Diapositibekin jarraitzen duzu.**

Argazki ona argazki ona da, berdin du

kamera digitalarekin ala analogikoarekin atera. Uneari ematen diot garrantzia. Diapositibekin gustura lan egiten dut eta oraingoz ez dut aldatzeko asmorik. Argazki-filmak egiteari uzten diotenean aldatuko dut.

**Ez al da garestia?**

Ez dakit... Kamera digitalak urtero berritzen dituzte. Nikon markaren kamerarik onenak 4.000 euro balio du eta hemendik urte pare batera jendeak beste horrenbeste edo gehiago gastatuko du. Nik bi kamera izan ditut. Egungoa duela lau urte erosi nuen eta oso gustura nago berarekin. Nikon F100 delakoa da. Bestalde, argazki-filmak kamerak bezain garrantzitsuak dira.

**Errebelatuetan asko gastatuko duzu...**

Bai, baina lortzen dudana ukitu egin dezaket. Diapositiba ukitu egin daiteke eta argazki digitala zenbaki bat besterik ez da. Scanner on batekin nire lanak digitalizatu ditzaket.

**Geroz eta laborategi gutxiago daude. Ez al duzu arazorik argazkiak errebelatzeko orduan?**

Bartzelonako laborategi profesional batera bidaltzen ditut. Argazkiak atera, bertara bidali eta egin dudana heltzen zait. Asmatu badut argazkia ona izango da eta bestela ez. Argazki txarra ezin da *Photoshop* programarekin konpondu, baina tranpak egin daitezke. Egun ez dago argazki bat benetakoa den jakiterik, koloreak aldatu baitaitezke. Nik denbora pasa beharra dut tripodearekin, enkoadraketa egiten... Beste batzuk, ordea, kamera digitalarekin heltzen dira, argazkia ateratzen dute eta ordenadorean konpontzen dute. Niri lana mendian bukatzea gustatzen zait, ez etxean.



# Gimnasia erritmiko eskolako beteranoak

*Gimnasia erritmikoa neska oso gazteek bakarrik egin dezaketela pentsatzen du jende askok, baina Urretxu eta Zumarragako gazte batzuk 30 urte-tik gora ere kirol honetan aritu daitekeela erakusten ari dira. Guztiak Beatriz Saizen ikasleak izan ziren eta bere eskolaren 25. urteurrena ospatzeko jantzi dituzte berriro ere elastikoak. Ekainaren 21ean eskolako egungo kideek batera jaialdia eskainiko dute Aldiri kiroldegian eta ondoren guztiak elkarrekin bazkalduko dute.*

Itsaso Biain, Ainhoa Callejo, Eneritz Zabaleta, Karmele Plazaola eta Leire Aranburu; Aldiri kiroldegian.





Gimnasia erritmiko taldeko kide ohiak duela aste batzuk hasi ziren entrenatzen eta *Otamotz* euretako zortzirekin izan zen saio batean. Rakel Idiakezek eta Karmele Plazaolak 33 urte dituzte, Leire Aranburuk 30, Karmele Etxeberriak 29, Eneritz Zabaletak eta Ainhoa Callejok 27, Jessica Valenciak 25 eta Itsaso Biainek 23.

Guztiak euren irakasle ohiaren gonbiteari erantzunez animatu dira berriro ere elastikoak janztera. “Duela hiru urte antolatu zen jaialdi batean ere parte hartu nuen eta Beatrizekin harremana dut oraindik. Hori dela eta, banekien ekitaldi hau antolatu nahian zebilela. Ekimenaren berri izan dugun lehenak izan gara gainontzekoei deitu diegunak”, azaldu du Leire Aranburuk.

Eskolaren lehen urratsak ezagutu zituzten 15 bat neska animatu dira. Baita duela gutxi utzi duten beste batzuk ere. “Ez nekien elastikoak kabituko zitzaizkidan, ezta salto egiteko gai izango nintzen ere, baina ez nuen zalantzarik izan”, aipatu du Rakel Idiakezek. Karmele Plazaola dagoeneko ama da eta bere bi haurrak etxean utzi behar ditu entrenamendu saioetara joan ahal izateko. “Beste batzuk ezin gara haurdun geratu, ekaina arte kirola egingo dugula agindu baitugu”, dio Rakel Idiakezek umorez.

Beste ikasle ohi batzuk ez dira eskolara itzultzera ausartu. “Batzuek antolaketa lanetan laguntzeko prest daudela eta bazkarira etorriko direla esan digute, baina ez dute jaialdian parte hartuko”, esan du Aranburuk.

30 urte baino gehiagorekin ere gimnasia erritmikoa egin daitekeela uste du.



Gimnasia erritmiko eskolako ikasleak, Beatriz Saiz irakaslearekin, 80ko hamarkadan.


“Jende asko harritu egin da eskolara itzuli garela jakin duenean, baina ez da zertan oso gaztea izan behar kirol hau egiteko: Almudena Cid horren adibidea da. Lehen baino malgutasun eskasagoa dugu, baina gure gorputza lehen baino hobeto ezagutzen dugu eta baloia, aroak eta zintak lehen baino hobeto kontrolatzen ditugu”, azaldu du. “30 urtetik gora, gorputza asko aldatzen da”, dio Idiakezek. “Nirea espero baino hobeto erantzuten ari da”, gehitu du Plazaolak. Eneritz Zabaletak ekainaren 21etik aurrera ere gustura jarraituko lukeela dio.

Horrek nesken artean giro aparta dagoela erakusten du. “Beti oso harreman ona izan dugu, bestela ez ginatke berriro hemen izango. Txapelketetan ez ginen onenak, baina bai ondoen pasa-

tzen genuenak”, esan du Aranburuk. Hasieran lehiari garrantzia handia ematen ziotela baina lagunak egin ziren heinean kiroletik kanpoko geroz eta ekimen gehiago antolatu zituztela oroitzen dute. “*Port Aventura*-n ireki zuten urtean izan ginen eta *Parisko Eurodisney*-ra ere joan ginen”.

Ikastolako txandal zaharra ere ez dute ahaztu. “Gure artean ikastetxe guztietako ikasleak zeuden arren, ikastolaren izenean lehiatzen ginen eta bere txandala eramaten genuen. Oso handia genuenez, desfileetan lotsa handia pasatzen genuen. Gainera, taldean bi gizonezko genituela esan dezakegu. Izan ere, Jesus Mari Garralda ikastolako irakaslea eta Beatrizen senarra gurekin etortzen ziren”, amaitu du Leire Aranburuk.





Alex Areizaga

Informatika

### Testua aukeratzea

Testua edo testu zati bat aukeratzeko orduan askotan ezerosoa egiten zaigu saguarekin aukeratzea. Hori ekiditeko, badaude teklatuaren bidez testua aukeratzeko modu errazak. Jar zaitez hautatu nahi duzun testu zatiaren amaieran, zapaldu ezazu *shift* botoia (*return*-aren azpikoa, gorantz begiratzen duen gezia duena) eta hau askatu gabe norabide botoiekin hasi ezkerretara, gora edo aukeratu nahi dugun testua dagoen norabidera sakatzen. Testua hautatzen hasiko da, hasieran aukeratu dugun puntutik guk markatzen diogunera (saguarekin ere egin daiteke bi puntuak *shift* zapalduz markatuta) *Shift*ekin batera kontrol tekla zapaldua mantentzen badugu, espazioen arteko hitz edo zati osoak aukeratuko dizkigu. Modu hauetan, saguarekin bueltaka aritzea ekingo duzun bezalaxe.



Izaro Sorraluze

Osasuna

### Aho bidezko kosmetika

Aho bidezko kosmetika, betiko azaleko tratamenduen osagarri gisa erabiltzeko sortu da. Kremek, lozioek... kanpotik barnera egiten dute beren efektua eta zaila izaten da dermisaren barneko geruzetara heltzea. Hau dela eta, kosmetika eta nutrizioa elkartu egin dira tratamendu iraultzaile hau sortzeko. Nutrikosmetiko hauek printzipio aktibo naturalez osatuak daude eta ez dute inolako kalterik eragiten kasu berezietan izan ezik (haurdun dauden emakumeak, edoskitzaroan daudenak edo osagai bati alergiaren bat diotenak). Barnetik kanporantz eragiten dute, hau dela eta emaitza ezin hobeak lortzen ari dira. Efektuak berehala nabari dira baina gutxienez 2-3 hilabetez jarraian hartzea gomendatzen da. Beti pilulak elikagaiekin hartu behar dira xurgapen egokia ziurtatzeko. Mota askotako pilulak daude, azalaren hidratazioa, irmotasuna eta dentsitatea hobetzen dutenak, beltzaran jartzen lagundu eta eguzkiak eragiten dituen mantxak eta alergiak gutxitzen laguntzen dutenak, ilearen erorketa geldiarazten dutenak, zelulitisaren aurka egiten dutenak...



# Geltokiko begiradak

Senarrak ez zuen azken aldian oso gustuko emaztea eta bederatzi urteko semearekin hirira erosketak egitera joatea; ordu luzeetan dendaz denda ibiltze hori astuna gertatzen zitzaion oso. Goizean indarrez ekin ohi zion jardunari, gogoz, baina orduak aurrera egin ahala, hirukoteak trinkotasuna galtzearekin batera, nekeak aise topatzen zuen euren arteko zirrikituak erreten sakon bilakatzeko modua.

Hasieran dendetara elkarrekin sartu, jantziak aukeratu, aldagelara joan eta ispilu aurreko mugimendu zalantzakorren aurrean elkarri iritzi eta aholkuak eman ohi zizkieten emazteak eta biek, eraman oneko haurraren begiradapean. Bazkalostean, berriz, dendetako erakusleihoaren parean geratzeko hautua egin ohi zuen senarrak, barrurako asmorik gabe, emaztea, beti poltsikoan eraman ohi zuen gomazko pilotatxoa lurraren aurka kolpatuz jolasean ari zen seme gogaitua eskutik arrastaka zeramala, dendara sartzen zen bitartean. Goizeko lehen orduan bizpahiru dendetan sartu irten azkarra egitea nahikoa baitzuen senarrak udaberriko jendaurreko konpromiso garrantzitsuetara dotore joatea bermatzeko. Emaztearena, berriz, beste kontu bat zen. Goiza ez ezik, arratsaldea ere beharrezko zuen hark ezer taxuzkorik (bere iritziko) aurkituko bazuen. Eta bazitekeen, gainera, etxera esku hutsik itzuli eta ondorengo asteburuan ere hirira joan behar izatea, bilaketa jardun antzuarri jarraipena ematera.

Larunbat hartan, ordea, udaberriko erosketa lanak bukatutzat emateko moduan ziren, zorionez. Kreditu txartelari astindu galantak eman ostean, hori bai. Erosketen ordainketa hiruzpalau hilabetez atzeratzeko aukeraz baliatzea zegoenetik, ordea, dena zen errazago, dena eramangarriago. Senarteko eta lagunuen aurrean azkenera agertzea zen lehentasun; eta gero gerokoak.

Azken eguzki izpi ahulek hiria kolore epelez jantzi eta egunak gauerako jauzia egin ohi duen tarte laburrean geltokiratu ziren, bada, hirurak, senar-emazteak hiruna poltsa eskue-tatik zintzilik eta semea pilota etengabe lurraren, pareten, farolen, zuhaitzen eta (nahigabe, ziurrenik) zenbait ibiltari

eta txakurren aurka kolpatuz. Pendulu harmonikoak bailiran dilindan zihoazen poltsa koloretsuak, ondo eginiko lanaren ikur nahastezin ziren; geltokia, eta ondorioz, etxerako bidea, hurbil somatzea, lehenagoko bisaia luzeen aringarri (eta euren arteko erretena estali berri zuen ore trinko).

Ez zegoen jende askorik nasan. Erabiltzaile gabezia omen, garraio publikoaren hutsunerik handiena. Bi minutu baino ez trena hel zedin. Haurrak pilota lurraren aurka kolpatzen zuen maiztasun beretsuan egiten zuen aurrera, urratsez urrats, geltokiko ordulari erraldoiaren orratzik bizkorrenak. Halako batean, pilotak lurra kolpatu ordez haurraren oin muturra ukitu eta bere kontrolpetik ospa egin zuen, ihes urdurian, nasan barrena, geltokiko zokogune umel batean pilaturik zeuden kartoizko kaxa batzuen aurka talka egin eta gelditu zen arte. Geltokira hurbiltzen ari zen trenaren hotsak, pilota berreskuratzerara abiatzeko haurrak egin zuen keinuak eta pilota heldu berri zen zokoguneko kartoizko kaxen mugimendu makalak eurenganatu zuten, modu beretsuan, guraso zalantzakorren arreta. Lozorrotik esnatu berri den hartz nagia baillitza, giza irudi baten itzala azaleratu zen kaxen azpitik, pilotatxoaren talkak ernarazita. Pilota eskuan hartu eta hari begira geratu zen, kuluxkaren lortzak uxatu ezinik. Burua jaso eta haurraren zein gurasoen begiradekin egin zuen bereak topo. Trena geltokira ailegatu zen ordurako eta nasan zegoen jende apurra barrurantz zihoan, pausoak inertzia hutsez emateak igortzen duen geltotasun irudian kateaturik. Haurrak pilotaren bila joateko baimena eskatu zion amari.

Besotik estu heldu eta trenaren barnera bultzatu zuen indarrez amak haurra, ahal bezala ordura arte esku banatan zeramatzan poltsak esku bakarraz oratuz. Hirukotea treneko zorua eta nasaren arteko bereizgarri diren bi mailatxoak igotzen ari zela, batere harmoniarik gabea begitandu zitzaion, trenen etengabeko joan etorrien jagole geltokiko egunkari saltzaileari, pendulu koloretsuen dilinda.

*Gorka Azkarate*



### Ino Ugarteburu

*Ino Ugarteburu ezkiotarrak La Salle-Legazpi ikastetxean egin zituen ikasketak. Bigarren mailako ofizial egin ondoren, basoan lanean hasi zen. Alaska tabernan eta Golden dantzalekuan ere lan egin zuen. Ondoren, gurpilak saltzen, jartzen eta konpon-tzen dituen Otaegi enpresan hasi zen eta 39 urte daramatza jada bertan. Dena den, Ugarteburu herri-kirolen munduan da ezaguna batez ere. Atxurrekin enborrak ebakitzen makina bat erakustaldi eskaini zituen, Goierriko aizkolari txapelketa ere irabazi zuen.*

#### **Zer izan nahi zenuen umetan?**

Txiki-txikitatik herri-kirolen munduan ibili naiz...

#### **Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Astegunetan ardo bat edateko eta Galeperran partidatxoak jokatzeko astia bakarrik dut. Asteburuetan mendira joaten naiz.

#### **Bizitzeko toki bat?**

Jaiotzez Ezkiokoa naiz, baina Urretxun gustura bizi naiz. Ezberdinak dira, baina biak atsegin ditut.

#### **Ikusi duzun aizkolaririk onena?**

Handiena Latasa izan dela esaten dute, baina ikusi dudan onena Mindegia da. Arrospide ere oso ona izan da.

#### **Zer diozu gazteez?**

Geroz eta aizkolari gazte gehiago daude. Aizkora berpizten ari dela esango nuke.

#### **Egungo zein kirolari azpimarratuko zenuke?**

Mari Jose Sardon. Patagonian egon da telebistarekin, judon onenetakoa da eta 125 kiloko harria altxatu du. Hori guztia ez du edonork eginen.

#### **Fernando Alonsoren gurpilak aldatuko al zenituzke?**

Ez, ez... haiena beste mundu bat da, baina batzuek dezente zirikatzen digute horren kontura.

#### **Gurpilei behar bezainbesteko garrantzia ematen al zaie?**

Gurpil kontua inoiz baino gehiago zaintzen da.

#### **Ileheriak ala beltzaranak?**

Berdin du. Ileheriak beltzaran jartzen dira egun...

#### **Egindako azken oparia?**

Krak tabernako Maiderrri lore sorta oparitu genion koadrilen arteko



lehiaketan herri-kirolak bultzatzeko egiten duen lanagatik.

#### **Eta jasotakoa?**

Erregetan izango zen.

#### **Data bat?**

Koadrilen arteko lehiaketa eguna.

#### **Neska eta mutil izen bana?**

Seme-alabena: Idoia eta Mikel.

#### **Zein egunkari irakurtzen duzu?**

Orain arte El Diario Vascorekin ibili naiz, baina Noticias de Gipuzkoara pasatu naiz.

#### **Gustuko telebista saioa?**

Kirol saio ia guztiak ikusten ditut.

#### **Bereziki gorroto duzuna?**

Zer edo zer zehatza ikusi nahi dudanean bakarrik pizten dut.

#### **Pelikula bat?**

Ez naiz pelikula zalea.

#### **Liburu bat?**

Kirolei buruzkoak irakurtzen ditut.

#### **Soinu bat?**

Kupela taldea atsegin dut.

#### **Usain bat?**

Bilatuz gero, zizena. Aurreko batean ziza usaina zegoela esan eta bila hasi ginen, baina alferrik...

#### **Janari bat?**

Lehen oso haragizalea nintzen, baina legatza esango dut.

#### **Ura ala...**

Ardo pixka bat.





# Joxe Mari Iparragirre

**BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA**

Santa Barbara bidea z/g. - Telefonoa/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13  
jmiparragirre@edunet.es - www.iparragirre.net - 20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

## 2008-2009 ikasturterako eskaintza

**Unibertsitate eta lan mundura bideratutako eskaintza zabala**



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BATXILERGOA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK BATXILERGOA

Izen-ematea:

Maiatzaren 5etik 9ra.

Matrikula:

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra.


ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA  
ERIZAIN LAGUNTZAILEA  
A eta D ereduak

Izen-ematea:

Ekainaren 2tik 13ra.

Matrikula:

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra.



Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

**Zure etorkizuna orain egingo duzun aukeraren eta ahaleginaren baitan dago**



# Urretxu-Zumarraga Ikastola

# Garaialde Lizeoa

**Goi mailako Heziketa Zikloetarako nahiz unibertsitaterako prestakuntza egokiena**



**BATXILERGOA - BATXILERGO FORMATIBOA - D EREDUA**  
**ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

**Aukerak: Zientzia eta Teknologia, Osasun Zientziak, Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak**  
**ZIG (Hezkuntza Berezia)**



[www.uzikastola.net](http://www.uzikastola.net)

[lizeoa.urretxu@ikastola.net](mailto:lizeoa.urretxu@ikastola.net)

Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12